

Abarrak

MIKEL GARCIA

Transgresio musikala

“HERRIALDE ARABIAARRETAKO emakume musikari askoren janzkera jada transgresio bat da, baita oholtza gainera atera eta kantatzeko duten jarrera. Tunisian musikariek oso modu metaforikoan erabiltzen dituzte hitzak, zentsurari aurre egiteko; Marokon debekatua dago Sahara hitza erabiltzea...” azaldu dit Fermin Muguruzak, elkarrizketa batean. Transgresio hitzak arau-urratze esan nahi duela diote hiztegiek, probokazio eta aldarrikapen konnotazio argia ere badu, eta musika aliatu bikaina da horretarako; galdetu bestela 80ko hamarkadako punk taldeei.

Gizarte bakoitzaren tabu eta inposaketez asko diosku transgresioak. Marokon Sahara transgresio dela genioen; Janet Jacksonen titiburua eta Lady Gagaren okelezko jantzia transgresio (eta espektakulu) dira estatubatuar puritano eta kontserbadoreen artean; Espainian kultura demokratikoa eta adierazpen askatasuna dira transgresio, Negu Gorriak, Su Ta Gar edo Sociedad Alcohólica taldeen kontzertuak debekatzeraino. Eta gurean, AHTaren, Pasaiako

Superportuaren, makrokartzelaren, autopista Scalextricoaren... hots, porlanaren eta azpiegitura erraldoien lurraldean,

transgresioa da erraustegiaren kontrako *flash-mob*ean iragan asteburuan bildu zen jendetzak kantatukoa: “Hartu nahi dut arnas (...) Kontainer aurrean hartazu ba arnas. Plastikoa dut sudur zulotan, paper albala berriz enpastetan, begietan, ke beltza begietan. Ez nau halare itsutuko, atez ate bilatu ta azkenean ikusi det, argiya ikusi det (...) Hau da momentua, erabaki, ez pasatzen utzi, berandu baino lehen, hartu nahi dut arnas (...) Gipuzkoa garbi, errausketarik ez!”.

Bai, gizartearen adierazle dira lurralde horretako tabu eta inposaketak, baina baita horien kontrako mugimenduen indarra ere.

Gora transgresio musikala! ■



Kilikatu Kultura, klikatu euskaraz!




kulturaGernikan.net
 Kultura batzordearen ataria

www.gernika-lumo-
euskaraz.com

 **gernika-lumo**
 euskaraz

GERNIKA
LUMO
 GARA GUSTURAK